## Intxaurrondo

# Asteburu honetan ere jai giroa nagusi

**Joan den astelehenetik Intxaurrondo Zaharra jaietan da. Oporren ondoren, gustura hartu dute auzotarrek jai giroa, eta datozen egunetan ere, gustura ariko dira auzo elkarteak (IZBE) antolatutako ekitaldietan.**

Ohi bezala, aurten ere izango da kontzerturik. Jaiotan ia klasikoa den Ttak taldeaz gain, Akats eta Nekez ariko dira taula gainean.

Intxaurrondo kalea izango da jaion epizentroa. Hala ere, zenbait ekitaldi parkean eta gaztetxean egingo dira.

Bestalde, aurten lehendabiziko aldiz, artisau azoka antolatu da. Larunbatean izango da, hilak 8, goizez (11.00-14.00) eta arratsaldez (16.30-20.00). Igandean, berriz, auzoko tabernetako sukaldariek beren dohainak erakutsiko dituzte parkean egingo den pintxo lehiaketan. Egun horretan, auzotarrak ez dira gose ibiliko, izan ere, pintxo lehiaketaz gain, patata tortilla lehiaketa eta sardina jana ere antolatu baitira. Sardina janarekin amaituko dira asteburu honetako ospakizunak. Hala ere, datorren ostiralean jaiari ekingo diote berriz ere auzotarrek, azken eguna izan arren.

**Larunbatean artisau azoka izango da**


Ttak taldea klasikoa da Intxaurrondo Zaharreko jaietan.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
Intxaurrondoko sukurtsalaren partetik ZORIONAK!
Lizardi bidea 2

BITAK
ELEKTRO MEKANIKA
Kotxe konponketa
Zurriola Pasealekua, 24
Tel.. 943 27 56 60
20002 DONOSTIA

MARIO taberna
KAZUELATXOAK ETA EGUNEROKO MENUA
Zubiaurre pasealekua 56 • INTXAURRONDO • Tel.: 943-27.75.55

## Intxaurrondo

## EGITARAUA



**Ostirala 7**

Gazte Eguna

16.00 Haur jokoak parkean

17.00 Puzgarri guda eta jokoak gaztetxean

18.00 Buruhandiak parkean

18.30 Txokolate jana parkean

20.00 Triki-bertso-poteoa

21.00 Gazte afaria Intxaurrondo kalean

22.30 Kontzertua gaztetxean: Ttak, Akats eta Nekez

02.00 Herri jokoak

**Larunbata 8**

10.00 Diana

11.00 -14.00 Artisau azoka

12.00 Haur danborrada

16.30 Mus txapelketa Intxaurrondo kalean

16.30-20.00 Artisau azoka

18.00 La familia Ramirez taldearen emanaldia

18.00 Buruhandiak eta erraldoiak

18.30 Sagardo dastaketa parkean

20.00 Pala txapelketako finalak

21.30 Herri afaria, Intxaurrondo kalean

23.00 Dantzaldia

00.30 Zezensuzkoa

02.00 Herri jokoak

**Igandea 9**

10.00 Diana

18.00 Tabernen arteko pintxo lehiaketa parkean

19.00 Patata tortilla lehiaketa parkean

20.30 Sardin jana parkean

**Ostirala 14**

11.00 Meza

14.00 Bazkaria aiton-amonentzat

18.30 Toka eta bote txapelketa

20.30 Herri afaria

22.00 Dantzaldia Bigira taldearekin

### Bigira datorren ostiralean

Intxaurrondo Zaharreko auzo elkarteak (IZBE), urtero auzoko taldeen kontzertuak antolatu ohi ditu jaietan. Ez da harritzekoa, tokian tokikoari bultzada eman behar zaio eta. Aurten Ttak taldeaz gain, Bigirako neskak ariko dira trikitixa eta panderoarekin jo eta su. Uda osoa batetik bestera ibili ondoren, auzotarren aurrean joko du laukote gazteak. Hilaren 14an izango da Bigiraren kontzertua, 22.00etan. Kontzertuarekin auzotarrek agur esango diete aurtengo jaiei.



IÑAUSTI

IÑAUSTI

JANGELA ZABALAK ETA ENPRESA BILERAK EGITEKO ARETOAK

GOIZEKO 7ETATIK IREKITA

GOSARIAK, PINTXOAK, OTARTEKOAK.

EGUNEROKO MENUA:
( 10 plater aukeran) 1.200 PEZETA

MENU BEREZIAK:3.000 PEZETA

APARKALEKU ZABALA.
LARUNBATETAN EGUN ERDIZ IREKITA.

ZUATZU KALEA 4
( EASO ERAIKUNTZA -2 ETA 3 LOKALAK )
20018 DONOSTIA

TELEFONOA:
943 313 933



MARCOS

Okindegia eta etxeko gozoak

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea
- Tel: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA

